

6. ARIKETA

Gure historia da etorkizuna (Estes 2020) liburuko 6. atala irakurri eta beheko taulan idatzi zein orrialdetan Nussbaum-en gaitasunak urratzen edota borrokatzen diren.

Hau ez da matematika ariketa eta eztabaidagarria da gaitasunen bat orrialde zehatz batean agertzen den ala ez. Hausnarketa hori da, izan ere, gure helburua. Dena den, "autoebaluazio prozedurak" atalean eskuragarri duzu proposamen bat, zure emaitzak eta gureak aldera ditzazun.

Gaitasuna (Nussbaum)	Atal honetako orrialdeak (Estes)
1. Bizitza. Hedadura normaleko giza bizitza azkeneraino bizitzeko gai izatea.	--
2. Osasuna. Osasun ona izateko gai izatea, ugalketa-osasuna, elikadura ona eta aterpea barne.	--
3. Osotasun fisikoa. Askatasunez mugitzeko eta sexualitatea derrigortzerik gabe bizitzeko gai izatea.	--
4. Zentzumenak, irudimena eta pentsamendua. Ahalmen horiek norberaren bizitzaren zentzua bilatzeko eta adierazteko, prestatzeko eta erabiltzeko gai izatea.	253
5. Emozioak. Sentimendu atseginak garatzeko lotura esanguratsuak izateko eta beste batzuekin elkartzeko gai izatea.	--
6. Arrazoi praktikoa. Ondasuna ulertzeko eta norberaren bizitzari buruzko hausnarketa kritikoa egiteko gai izatea.	246, 255

<p>7. Afiliazioa, bai beste batzuekin konprometitzeko gai izateko, bai diskriminaziotik eta umiliaziotik babesteko.</p>	<p>--</p>
<p>8. Naturarekiko eta beste espezie batzuekiko harremana. Animaliak, landareak eta mundu naturala bizitzeko gai izatea.</p>	<p>--</p>
<p>9. Jolasa. Barre egiteko, jolasteko eta jolas-jarduerez gozatzeko gai izatea.</p>	<p>--</p>
<p>10. Norberaren ingurunea kontrolatzea, bai politikoki bai materialki, besteekiko berdintasunean oinarrituta; horren barruan sartzen da politikan parte hartzeko gaitasuna eta ondasuna, lana eta pribatutasuna izatea, ez bakarrik modu formalean, baita benetako aukerei dagokienez ere.</p>	<p>244, 253, 291</p>

Hausnarketarako galdera: **Ba al dago atal honetan funtsezkoa den beste gaitasunen bat, Nussbaum-en zerrendan ez dagoena?**